

KUDEAKETA BERRITZAILE BATEN BIDEZ *ENGAGEMENT-A* SORTZEA

EMAN IZENA



DATA ETA ORDUTEGIA	Osteguna, urriak 9. 09:30etatik 13:30etara.
FORMATUA	Aurrez aurrekoa.
LEKUA	Hermanos Lumiere 11, Gasteiz, Araba. Euskadiko Teknologia Parkea Gasteizko Campusa.
IRAUPENA	4 ordu.
PLAZAK	30.
NORENTZAT	10 langile baino gehiagoko ETEentzat bakarrik. - Pertsonak kudeatzeko ereduak ebaluatzeko eta aldatzeko interesa duten erakundeentzako, beren taldeen konpromisoa eta inplikazioa sustatu nahi dutenak. - Zuzendari Nagusientzat, Giza Baliabideen zein Talentu – zuzendarientzat. * Gehienez bi pertsona enpresa bakoitzeko.

IKASKUNTZA HELBURUAK

- Gaur egun erakundeetan pertsonak kudeatzeko erabiltzen den eredu kritikoki aztertzea.
- Enpresa pertsonen kudeaketako antolaketa-heldutasunaren eredu kokatzea.
- Antolamendu-erronkekiko konpromiso, proaktibotasun eta lerrokatze handiagoa sortuko duten eredu berritzaileak ezartzeko ibilbide-orria ezartzea.



PRESTAKUNTZAREN EDUKIA

1. Zer da heldutasun-eredua pertsonen kudeaketan? Zer helburu/erabilgarritasun du erakundeentzat?
2. Erakundearen heldutasun-egoera. Erreaktiboa, egituratua, proaktiboa, arina, eraldatzailea.
3. Eredu bakoitzaren ezaugarriak eta enpresentzako eta bertako pertsonentzako onurak.
4. Ebaluatzeko tresnak. Autodiagnostiko-dinamika. Erakundearen diagnostiko azkarra egitea.
5. Indarguneak eta hobetzeko aukerak identifikatzea.
6. Transformazio-estrategiak diseinatzea.
7. Liderren rola aldaketa-prozesuan.
8. Ekintza lehenestea, inpaktuaren eta inbertsioaren itzulkinaren arabera.

Oharra: Nahi duten enpresentzat, trebakuntza ondoren jarraipen pertsonalizatuko saio bat egiteko aukera eskainiko da.

NOREKIN



JOSEBA ÁLAVA

ieTeam Consultores-eko
aholkularitza-arduraduna

Talentuaren Aholkularitza-arloko arduraduna da, eta eskarmentu handia du erantzukizun-posizioetan. Antolaketa ereduen birdiseinua eta talentuaren kudeaketa aurreratuko politiken definizioa oinarri duten proiektu estrategikoen buru izan da. Gaitasun pertsonalak sustatzen lan egiten du ikuspegi orokor batekin, baita diagnostikorako eta garapenerako irtenbide berritzaileak garatzen eta ezartzen ere. Irtenbide horiek pertsonen eta erakundearen beharrak teknologiarekin lotzen dituzte, balioa sortzen duten eta enpresak egungo ingurunean erronkekin lerokatzen dituzten eraldaketak bultzatuz.



KEPA PERA

ieTeam Consultores-eko
aholkularia

Talentu-aholkularia, trebakuntza- eta lidergo-programetan espezializatua. Esperientzia sendoa du talentua kudeatzeko ekimenetan, antolakuntza-egituren diseinuan, langileen esperientziaren hobekuntzan eta plangintza estrategikoan. Pertsonen garapena erakundearen helburuekin lerokatzea du helburu, errendimendu handiko eta hazkunde jasangarriko kulturak bultzatuz.